


## SARRERA
INTRODUCCIÓN

**Romanic Bike Route** ibilaldiaren helburua da zikloturistak lotzea ondarearekin, bai naturala bai kulturala.

Ibilaldiak 79,50 km ditu guztira, eta horren ildo nagusia da Arabako lurraldearen ondare erromaniko aberatsa.

Araban, 240 bat tenplu zehaztu dituzte, eta denak natura-aberastasun handiko eremuan daude. Tenplu horietako bakoitzak bestelako interesa ematen dio arteari: ibilbidean zehar zabalduz doazen askotariko paisaiak; paisaia horietatik ikusten diren panoramikak; eta, halaber, naturarekin gertu-gertu dauden bazter idilikoak.

Erromanikoaren ibilaldiaren bidez, pedalei eraginda, tenplu horien ezaugarri garrantzitsuez ohartuko gara. Tenplu horiek erromaniko berantiarraren baitan daude, eta apainketa aberatsa dute, ikonografia ikusgarria eta zenbait elementu, batzuetan margo gotiko zoragarriak dituztenak. Era berean, ibilaldiak aukera ematen du lurraldeko beste bizikleta-bideen berri izateko eta horiek miatzeko; besteak beste, Donejakue Bidea, Vasco Navarro, GR 38…

**Ondarea, natura eta bizikleta Araba ezagutzeko.**

*La **Romanic Bike Route** es una ruta que pretende vincular al público cicloturista con el patrimonio, tanto natural como cultural.*

*La ruta alcanza un total de **79,5 Km.** y su hilo conductor es el rico patrimonio románico del territorio alavés.*

*En la provincia de Álava se localizan alrededor de 240 templos románicos, ubicados todos ellos en un entorno de gran riqueza natural. Cada uno de estos templos ofrece alicientes añadidos al meramente artístico: los variados paisajes que se abren a lo largo del recorrido, las panorámicas que se divisan desde muchos de ellos, así como idílicos rincones de contacto con la naturaleza.*

*Esta ruta del románico, a pedales, nos hará descubrir las principales características de estos templos,dentro del románico tardío, que atiende a una rica decoración, espectacular iconografía y una serie de elementos, en algunos casos maravillosas pinturas góticas en su interior. Al mismo tiempo la ruta da la opción de conocer y explorar otras rutas ciclables propias del territorio, como son Camino Santiago, Vasco Navarro, GR 38…*

***Patrimonio, naturaleza y bici para conocer Álava.***




## ERAGIN PEDALEI SEGURTASUNEZ
PEDALEA SEGURO

**Kaskoa**
Casco

Erabili beti kaskoa. Egoki jantzita eta lotuta eraman ezazu beti.

*Utiliza siempre el casco. Llévalo siempre puesto y abrochado adecuadamente.*

**Arropa**
Ropa

Egokia eta beharrezkoa den arropa eraman: kolore biziak, elementu islatzaileak.

*Equípate con ropa adecuada, colores vivos elementos reflectantes.*

**Argia**
Luz

Argi gorria jar ezazu zelaren tutuan non zauden ikustarazteko.

*Instala una luz roja en la tija del sillín para señalizar tu presencia.*

**Asegurua**
Seguro

Istripu-asegurua kontratatu zure bidaia-agentzian.

*Contrata un seguro de accidentes en tu agencia de viajes.*

**Ura eta janaria**
Agua y comida

Ibilbiderako eraman ezazu beti ura eta janari pixka bat.

*Lleva siempre agua y algo de comida para la ruta.*

**Larrialdiak**
Emergencias

Larrialdirik edo istripurik egonez gero, deitu 112 telefonora.

*En caso de accidente o emergencia, llama al teléfono 112.*



## IBILBIDEAREN INFORMAZIOA
INFORMACIÓN DE RUTA




Km. **79,5**

+470 m.

5h

**Bide Zirkularra**
Ruta Circular

**ARMENTIA**
Vitoria/Gasteiz

**ESKANEATU QR KODE HAU INFORMAZIO GEHIAGO EDUKITZEKO ETA TRACK-A DESKARGATZEKO**

PARA MÁS INFORMACIÓN Y DESCARGA DEL TRACK DE LA RUTA ESCANEA ESTE CÓDIGO QR




## ONDAREA
PATRIMONIO

### Tenpluz Tenplu Erromanikotik

Erromanikoko Harribitxietako batetik irtengo gara, Armentiako Basilikatik. Abiapuntu ezin hobea da, hiritik gertu baitago, erraza baita hor autoa uztea eta inguruan edertasun handia baitu.

Gasteizko Eraztun Berdea eta Vasco Navarroko bide garrantzitsuak, besteak beste, hartu ondoren, abiatuko gara Otazurantz, Andollurantz eta, Donejakue Bideko zati txiki batetik aurrera egin ostean, gure bigarren geldialdira iritsiko gara. Hori ere Erromanikoaren beste Harribitxi handia da, Estibalizko santutegia.

Vasco Navarrok Erentxunera eramango gaitu. Uribarri-Jauregirantz joko dugu, eta, geroago, Gereñurantz doan errepidetik, bertatik Alaitzara joateko.

Alaitzatik Gazeora A 4111tik joango gara, leun-leun jaitsiz, eta Gazeotik Ezkerekotxara, Donejakue Bidearen argibideei jarraiki. Donejakue Bidetik jarraituko dugu, eta Alegría-Dulantziko Aiarako ermitara helduko gara.

Burgelura iritsiko gara, eta hor Oreitiarantz egingo dugu.

GR38ra sartuko gara, Arbulurantz joateko, eta, ondoren, Posten erregebidea hartzeko Zurbaoraino eta Vitoria-Gasteizko Eraztun Berderaino.

Azken geldialdiak Abetxukura garamatza. Horrek pedaletan oinarritzen den erromaniko hau osatzen du, azkenik, abiapuntura berriz itzultzeko: Armentiara.





### Templo a templo por el Románico

*Salimos de una de las consideradas Joyas del Románico, la Basílica de Armentia, punto idóneo de arranque por ubicarse cerca de la ciudad, por la facilidad de aparcamiento y por la belleza del entorno*

*Tomando vías importantes como son el Anillo Verde de Vitoria-Gasteiz y el Vasco Navarro, ponemos rumbo hasta Otazu, Andollu y llegamos a nuestra segunda parada que es la otra Gran Joya del Románico: Santuario de Estíbaliz.*

*El Vasco Navarro nos hará llegar a Erentxun. Continuamos dirección Ullibarri-Jauregui por la carretera que va a Gereñu desde donde iremos a Alaiza por la carretera A-3110.*

*De Alaiza a Gazeo nos desplazamos en suave descenso por la A-4111 y de Gazeo, con las indicaciones del Camino de Santiago hasta Ezkerekotxa. Continuamos por el Camino de Santiago y llegamos a la ermita de Ayala de Alegría-Dulantzi.*

*Llegamos hasta Elburgo y de allí tomamos rumbo a Oreitia.*

*Nos incorporamos al GR38 para ir a Arbulo y tomar después el Camino Real de las Postas hasta Zurbano y al Anillo Verde de Vitoria-Gasteiz.*

*La última parada nos lleva a Abetxuko que completa este pedaleo románico para terminar en el punto de partida: Armentia.*





SUSTATZAILEA / PROMUEVE

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILA — DEPARTAMENTO DE TURISMO, COMERCIO Y CONSUMO

LAGUNTZAILEAK / COLABORAN

araba álava foru aldundia diputación foral

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz Vitoria-Gasteizko Udala


turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/

KM 0 · ARMENTIA → · KM 9 Otazu · KM 16,9 ESTIBALIZ → · KM 20,5 Trokoniz · KM 24 ERENTXUN →

## 1 ARMENTIAKO BASILIKA
## BASÍLICA DE ARMENTIA



Ibilbidea **Armentiako baselizatik** hasten da.

Bere benetako izena **Armentiako San Prudentzioren eta San Andresen basilika** da, eta San Prudentzio gurtzeko lekua da, Arabako zaindaria. XII. mendean eraiki zuten, kolegiata gisa, baina XVIII. mendean gainbehera etorri zitzaion. 1776an, tenplua zaharberritu zen, eta bere itxura betiko aldatu zen. Garai hartan, hondakin erromaniko batzuk hor nonbait sakabanatu ziren, eta beste batzuk, aldiz, elizpean kokatu ziren berriro, testuingurutik kanpo.

Edertasun handiko buru-hausgarri horrek errazten dio zikloturistari bidean abiatzea, eta hasiera-hasieratik birikak erromaniko hutsez puzten ditu eremu paregabean.

*La ruta parte de la **Basílica de Armentia.***

*Su verdadero nombre es la **Basílica de San Prudencio y San Andrés de Armentia** y es sede de culto a San Prudencio, patrón de Álava. Construida durante el siglo XII como colegiata pero entró en decadencia durante el siglo XVIII. En 1776 se realizó una restauración del templo que modificó para siempre su aspecto. En esa época parte de los restos románicos se desperdigaron y otros fueron reubicados en el pórtico, completamente descontextualizados.*

*Este rompecabezas de belleza extrema facilita al cicloturista el arranque de su ruta y llena los pulmones, ya de primeras, de románico en estado puro en un marco incomparable.*

**BISITA BIRTUALA**
VISITA VIRTUAL
QR kode hau eskaneatu, eta **Armentiako baselizaren** barrualdea aztertu.
*Escanea este código QR y descubre el interior de la **Basílica de Armentia.***

## 2 ESTIBALIZKO ANDRE MARIAREN SANTUTEGIA
## IGLESIA DE NUESTRA SEÑORA DE ESTÍBALIZ



Zalantzarik gabe, Arabako erromanikoaren harribitxi handia da. Mendixka baten gainaldean dago, eta sorrera du Araba jendez betetzen hasi zenean. Eliza erromanikoaren eredua da, elementu aurre-gotikoekin, gurutze latindar formako oinplanoarekin eta berezitasun du hiru abside izatea. Kanpoaldeko aipagarriena da Speciosa aurrealdea, landare-apainketa zabala eta, halaber, alboetako eskulturak eta harburu deigarriak. Horrek guztiak bihurtzen dute Arabako edertasun-multzo handienetarikoa.

Tenplutik metro gutxira, **Erromanikoaren Interpretazio Zentroa** dago, eta ezin hobeki osatzen du bisita horrek geldialdi hau.

*Es, sin duda, la gran joya del románico alavés. Ubicada en lo alto de un cerro cuya historia se remonta hasta los orígenes del poblamiento en Álava. Se trata de un modelo de iglesia románica con elementos progóticos, con planta de cruz latina y la peculiaridad de tener tres ábsides. Lo más destacable en el exterior es su portada Speciosa, su amplia decoración vegetal, así como esculturas en los laterales y sus llamativos canecillos. Todo ello la coronan como uno de los conjuntos más bellos de Álava.*

*A pocos metros del templo se encuentra el **Centro de Interpretación del Románico,** una visita que completa muy gratamente esta parada.*

**BISITA BIRTUALA**
VISITA VIRTUAL
QR kode hau eskaneatu, eta **Estibalizko Andre Mariaren santutegiaren** barrualdea aztertu.
*Escanea este código QR y descubre el interior del **Santuario de Nuestra Señora de Estíbaliz.***

## 3 SAN ANDRES ELIZA
## IGLESIA DE SAN ANDRÉS



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

Ia nahitaez egin beharreko geldialdia da, Araban kontserbatzen den arkupe erromanikoaren adibide bakanetako bat ikusi ahal izateko, eta erlaitzaren aztarnei esker, aurreko eraikin erromanikoa azter dezakegu.

Elizpearen barrualdea nabarmentzen da landareekin osatutako dekorazioaren aberastasunagatik.

*Parada casi obligada en ruta para poder contemplar uno de los pocos ejemplos de pórtico románico que se conserva en Álava y del que podemos adivinar, gracias a los restos de cornisa, su anterior edificio románico.*

*El interior del pórtico destaca por la riqueza de su decoración con motivos vegetales en la portada.*

KM 30 Ullíbarri-Jauregui · KM 31,7 Gereñu · → ALAIZA KM 34,7

## 4 JASOKUNDEAREN ELIZA
## IGLESIA DE LA ASUNCIÓN

Erentxunetik Alaitzarako bidean jarraituko dugu. Lehenago, Uribarri-Jauregitik eta Gereñutik igaroko gara, eta bi herri horiek behartuko gaituzte, pedalei eragin bitartean, inguruari begiratu bat baino gehiago ematera.

Margolan misteriotsuen eliza deritzona. **Alaitzako Jasokundearen eliza**ren absidean margo gorrixkak daude, eta hor guda eszenak irudikatzen dira, hain zuzen leku sakratu bati ez dagozkionak.

Ohiz kanpoko xehetasun gehiago daude Alaitzari buruz: bi habearte ditu, Arabako erromanikoan ohikoena izanik bat izatea; elementu arkitektoniko zehatzak ditu, XIV. mende inguruan egin behar izan zen eraberritze baten parte izan daitezkeenak. Azkenei dagokienez, ez genuke espero eliza batean egotea, mendebaldeko horman oraindik bizirik dirauen jauregi-leiho baten gisan.

*De Erentxun continuamos ruta hacia Alaiza, pasando antes por Ullibarri-Jauregui y Gereñu dos localidades que nos harán echar algo más que un vistazo entre pedales.*

*Denominada como la iglesia de las pinturas misteriosas, la **Iglesia de la Asunción en Alaiza** con las pinturas rojizas de su ábside en las que se recrean escenas bélicas muy poco propias de un lugar sagrado*

*Hay más detalles de Alaiza que están fuera de lo común: tiene dos naves, cuando lo habitual en el románico alavés es una sola; tiene elementos arquitectónicos que podrían formar parte de una reforma que se tuvo que realizar en torno al siglo XIV que no nos esperaríamos encontrar en una iglesia como una ventana palaciega que todavía sobrevive en la pared oeste.*

**BISITA BIRTUALA**
VISITA VIRTUAL
QR kode hau eskaneatu, eta **Alaitzako Jasokundearen** barrualdea aztertu.
*Escanea este código QR y descubre el interior de la **Iglesia de la Asunción de Alaiza.***



→ GAZEO KM 38,6

## 5 TOURSEKO SAN MARTIN ELIZA
## IGLESIA DE SAN MARTÍN DE TOURS



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

Gazeoko horma-irudiak dira XIII. mendeko arte plastikoaren eredu onenetarikoak, kontserbazio egoera ezin hobean daude, eta hirurogeiko hamarkadan aurkitu zituzten. Bertan, hilezkortzen dira, adibidez, Trinitate Sainduaren misterioa edo arimen Judizio kezkagarria eszenak.

Beraz, nahiz eta kanpoalde urria eduki, galdu behar ez den altxor horietakoa da.

*Los murales de Gazeo son una de las mejores muestras del arte plástico del siglo XIII en perfecto estado de conservación, descubiertas en la década de los sesenta. En ellos, se inmortalizan escenas como el misterio de la Sagrada Trinidad o el inquietante Juicio de las almas.*

*Es por tanto, a pesar de su sobrio exterior, uno de esos tesoros que no hay que perderse.*

KM 40,7 EZKEREKOTZA →

## 6 SAN ERROMAN ELIZA
## IGLESIA DE SAN ROMÁN



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

Done Jakue bideak protagonista izaten jarraitzen du zenbait harribitxi erromaniko hauen artean, eta horren adibide da Ezkerekotxako San Erroman eliza. Tenpluaren adierazgarri da kanpoaldeko itxura, eraikinak azaltzen baitigu zenbait eraikuntza-etapa izan dituela, eta interes berezikoa da, berriz, leihatea, hainbat motiborengatik apainduta baitago.

Erdi-puntuz osatutako aurrealdeak, orobat, irudi bereziak ditu, baita berezkoa den xake itxura ere.

*Es el camino de Santiago el que continúa con su protagonismo al paso de algunas de estas joyas románicas, como es el ejemplo de la iglesia de San Román de Ezkerekotxa. Destaca de este templo su aspecto exterior que nos narra que el edificio ha tenido diferentes etapas constructivas y es de interés especial su ventanal decorado con variados motivos.*

*La portada de medio punto presenta también particulares figuras y el característico ajedrezado.*

KM 46,9 ALEGRÍA-DULANTZI →

## 7 AIARAKO ANDRE MARIA
## NUESTRA SEÑORA DE AYALA



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

Aiarako Andre Mariaren ermita da Arabako Lautadan hobekien kontserbatutako tenpluetako bat, eta berant-erromanikotzat hartzen da.

Tenplu hori berezia da kanpoaldean duen arkupeagatik eta adierazkortasun handiko harburu multzoagatik.

Hortik bertatik dauden ikuspegiak ezin hobeak dira paisaiarekin bat egiteko eta hura gertu sentitzeko.

*La Ermita de Nuestra Señora de Ayala es uno de los templos mejor conservados de la Llanada Alavesa y se considera un templo tardorrománico.*

*La singularidad de este templo es la de disponer de un pórtico exterior y un conjunto de canecillos de gran expresividad*

*Las vistas, desde este punto, son un paisaje digno de respirar y sentir.*

→ ELBURGO/BURGELU KM 49,3 · KM 51,2 OREITIA →

## ARRARAINGO SAN JOAN 8
## SAN JUAN DE ARRARAIN



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

Donejakue Bidean jarraituko dugu, eta, oraingoan, ermita txiki batekin egingo dugu topo, Arraraingo San Joan ermita. Bere izena ematen zaio desagertutako Arrarain herriari.

XII. mendeko burualdea du, eta baita erromanikoaren aurreko ikonografia ere, kontserbatzen diren harburu adierazkorrekin batera. Hori guztia da Burgelutik kanpo dagoen tenplu horren bereizgarria.

*Continuamos con el camino de Santiago que alberga, en esta ocasión, una pequeña ermita, la de San Juan de Arrarain, cuyo nombre se atribuye al ya desaparecido pueblo de Arrarain.*

*Cuenta con una cabecera del S XII y su iconografía prerrománica , junto con los expresivos canecillos que se conservan, son la identidad de este templo a las afueras de Elburgo.*

## 9 SAN JULIAN ETA SANTA BASILISA
## SAN JULIÁN Y SANTA BASILISA



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

San Julian eta Santa Basilisako eliza eraiki zen XII. mende hondarrean. Nabarmentzekoak dira figurazko kapitel ugariz osatutako aurrealdea eta landare-dekorazioa duten erdi-puntuko leihoak.

Baina burualdean aurkitzen ditugu, hain zuzen, eremuko erromanikoaren ikurrak: Oreitiako zalduna.

*La iglesia de San Julian y Santa Basilisa se construyó a finales del S XII. Destacan su rica portada con capiteles figurativos y su ventanal de medio punto con decoración vegetal.*

*Pero es en el lado de la cabecera donde encontramos uno de los emblemas del románico de la zona: el caballero de Oreitia.*

KM 54,1 ARBULO/ARBULU →

## 10 TOURSEKO SAN MARTIN
## SAN MARTÍN DE TOURS



BISITA BIRTUALA
VISITA VIRTUAL

Tenplu erromanikoa, baina kanpotik aztertuta gotiko berantiar eta Errenazimentuaren egitura du. Konpondu ziren estalkiak eta gangetan margotutako kode gotikoak, eta, erretaularen atzealdean, agertu ziren elizaren jatorrizko murruak eta margo bitxi batzuk.

Horrelaxe, gure pedal-jarduera osatuko da beste behin geldialdi polikromatu batekin.

*Templo románico, aunque desde su exterior es una estructura propia del gótico tardío y renacentista. Se arreglaron las cubiertas, las impresionantes claves góticas pintadas de las bóvedas y, tras el retablo, aparecieron los muros originales de la iglesia y una serie de pinturas extrañas.*

*De esta manera nuestro pedaleo vuelve a empaparse de una parada policromada.*

KM 69,7 ABETXUKO → · KM 79,5 ARMENTIA

## 11 SAN MIGUEL ELIZA
## IGLESIA DE SAN MIGUEL



Hemen ia kilometro bat urrundu behar dugu bidetik iparralderantz, herria zeharkatu eta elizara iristeko.

Kristoren elizatzat hartzen da, bertan gurtzen den Gurutziltzatuaren irudiagatik. Tailu hori 1835ekoa da, Badaiako Santa Katalina agustindarrek Mendizabalen desamortizazioaren ondorioz abandonatu zutenekoa. Kronika batzuen arabera, Kristo handi hori eraman zuten Abetxuku herriko ermita erromanikora.

Tenplua XIII. mendekoa da, eta garaiko kanpai-horma gaur egun dorrea da.

*Aquí nos tenemos que alejar de la ruta casi un kilómetro hacia el norte para atravesar el pueblo y llegar a la iglesia.*

*Identificada como la iglesia del Cristo por la imagen del Crucificado que se venera en ella. La historia de esta talla se remonta a 1835, fecha en la que los agustinos del convento de Santa Catalina de Badaya, lo abandonaron a causa de la desamortización de Mendizabal. Según algunas crónicas, este impresionante Cristo fue llevado a la ermita románica del pueblo de Abetxuko.*

*El templo es del s XIII y su antigua espadaña es hoy su torre.*

**BISITA BIRTUALA**
VISITA VIRTUAL
QR kode hau eskaneatu, eta **Abetxukoko San Miguel elizaren** barrualdea aztertu.
*Escanea este código QR y descubre el interior de la **Iglesia de San Miguel de Abetxuko.***

## GOZATU GAINERA ...
## DISFRUTA ADEMÁS DE ...

### LAUTADAKO ELIZA MARGOTUEN IBILBIDEA
### RUTA DE LAS IGLESIAS PINTADAS DE LA LLANADA

**Añuako Jasokundeko Ama Birjinaren eliza**k osatzen du Arabako Lautadako "eliza margotuen" multzoa. Bertan, nabarmentzekoak dira dagoen Lautada osoko harburuen bilduma interesgarrienetako bat, eta, halaber, abside oktogonala, inguruko harribitxitzat jotzen dena.

*La **Iglesia de la Natividad de Nuestra Señora de Añua** completa el conjunto de "iglesias pintadas" de la Llanada Alavesa, destacando en ella una de las colecciones más interesantes de canecillos de toda la Llanada así como su ábside ochavado, considerado una auténtica joya de la zona.*

### AGURAIN-SALVATIERRA

Salavatierra-Aguraingo hiribildu harresitua da Araban bere historiaren luze-zabalera hobekien mantentzen duen tokietako bat, horrek dituen hormengatik, harresiengatik, jauregiengatik eta San Joan eta Santa Maria eliza gotiko zein San Martin ermita erromanikoagatik (azken hori udaletxearen barrenean).

*La villa amurallada de Salvatierra-Agurain es uno de los lugares de Álava que mejor conserva la esencia de su historia entre sus muros, murallas, palacios y las las iglesias góticas de San Juan y Santa María, y la ermita románica de San Martín (ubicada en el interior del ayuntamiento).*

### ERROMANIKOAREN INTERPRETAZIO ZENTROA
### CENTRO DE INTERPRETACIÓN DEL ROMÁNICO ALAVÉS

Estibalizko santutegiaren aurrean dago, eta erreferentzia egiten dio erromanikoaren jatorriari, baita horrek Araban izan duen agerpenari ere.

*Ubicado frente al Santuario de Estíbaliz es un espacio expositivo que hace referencia al origen del románico, así como su presencia en el territorio alavés.*

### HENAIOKO KASTROA
### CASTRO DE HENAIO

Henaioko Castrok Alegria-Dulantziko erdigunetik bi kilometro eskas ditu.
Interpretazio Zentroak eta tamaina naturaleko bi etxek erakusten dute Brontze Aroko eta Burdin Aroko herrietako etxebizitzen eraikuntza eta barne-giroa.

*El Castro de Henaio se encuentra situado a escasos dos kilómetros del centro de Alegria-Dulantzi.*
*El Centro de Interpretación y dos casas a tamaño natural muestran la construcción y el ambiente interior de las viviendas del poblado durante la Edad del Bronce Final y durante toda la Edad de Hierro.*

### ZALDUONDO: ARDOAREN ITURRIA
### ZALDUONDO: FUENTE DE VINO

Zalduondoko herriak ondare historia-, arte- eta kultura-ondare aberatsa du. Esaten dute Zalduondon "Zeledon" jaio zela, Vitoria-Gasteizko jaiak hasi eta ixten dituen baserritar arabarra. Hura gogoratzen dute Zalduondon, abuztuaren lehen egunean, haren omenez dagoen iturriagatik, hain zuzen, ardoa ematen duena.

*La localidad de Zalduondo cuenta con un rico patrimonio histórico, artístico y cultural.*
*Dicen que en Zalduondo nació "Celedon", el aldeano alavés que abre y cierra las fiestas de Vitoria-Gasteiz y en Zalduondo primero de agosto se le recuerda por la fuente de la que mana vino en su honor.*

### VITORIA-GASTEIZKO ERAZTUN BERDEA - ATARIA
### ANILLO VERDE DE VITORIA GASTEIZ - ATARIA

**Vitoria-Gasteizko Eraztun Berdearen Bira** zirkulu-formako ibilbidea da, eta 30,8 kilometro ditu. Horrek hiria inguratzen du, eta Eraztun Berdea osatzen duten parkeak igaro eta lotzen ditu: Armentia, Olarizu, Salburua, Zabalgana, Zadorra eta Errekaleor.
Atariako Interpretazio Zentroak eta hegaztien bi behatokik, baita dauden askotariko erakusketek eta jarduerek ere, harribitxi natural honen balioa azpimarratzen dute hirian.

*La **Vuelta al Anillo Verde de Vitoria-Gasteiz** es una ruta circular de 30,8 kilómetros, que rodea la ciudad, recorriendo y enlazando todos los parques que forman el Anillo Verde: Armentia, Olarizu, Salburua, Zabalgana, Zadorra y Errekaleor.*
*El Centro de Interpretación de Ataria y dos observatorios de aves, además de las exposiciones y actividades diversas que ponen en valor esta joya natural en la ciudad.*

## BISITA GIDATUAK
## VISITAS GUIADAS

- Enpresa / *Empresa:* **ÁLAVA MEDIEVAL**
  **www.alavamedieval.com**
- Turismo bulegoa / *Oficina de turismo:* **AGURAIN-SALVATIERRA**
  **T. 945 302 931 / info@arabakolautada.eus**

## INFORMAZIO GEHIAGO
## PARA AMPLIAR INFORMACIÓN

**turismo.euskadi.eus/es/**
**www.alavaturismo.eus**
**www.visitlautada.com**
**www.vitoria-gasteiz.org**



turismoa.euskadi.eus/eu/
turismo.euskadi.eus/es/